

2001-2002 ikasturtia

3. unidadia: KOOPERAZIÑO-JOLASAK

Zu nere alde, ni zure alde!

Jolasa ≠ Jokua

Baietz irabazi! Ezetz egin! (~~A que...~~)

Jolastu / Jolas egin / ... ibilli / ...egin /jardun

Jolastuko gara? (~~Jolastuko dugu?~~)

Jolastuko gara? (~~Jolasten gara?~~)

Ia zeinek egiten daben azkarrago! (~~A ver quién...~~)

(eta jolas-egoerei lotutako zenbait esamolde)

gehixago eta hobeto

-Bale-baleka ibilliko gara ala
soka saltuan egingo dogu?



gehixago eta hobeto

Zu nere alde, ni zure alde!

Jolastu / Jolas egin / ... ibili / ...egin /jardun

Jolastuko gara? (Jolastuko ~~dugu?~~)

Jolastuko gara? (Jolasten gara?)

Ia zeinek egiten daben azkarrago! (~~A ver quien...~~)

Jolasa ≠ Jokua

Baietz irabazi! Ezetz egin!(~~A que...~~)

(eta jolas-egoerei lotutako zenbait esamolde)

AURKIBIDEA



IRAKASLIARENDAKO MATERIALA

1- Helburuak	3
2- Bibliografia	4
3- Akatsen azalpena eta bertako eredu zuzenak	5



KLASIAN LANTZEKO BIDIAK

4- Hizkuntza-taillera	7
4.1- Helburuak	7
4.2- Metodologixia	8
4.2.1- Haur Hezkuntza	8
4.2.2- Lehen Hezkuntza	8
4.2.3- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	10



ERANSKIÑAK

10- Haur Hezkuntza	12
11- Lehen Hezkuntza	15
10- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	18

-Bale-baleka ibilliko gara ala soka saltuan egingo dogu?



Oharra:

Jokuak eta jolasak, eta horren inguruan sortzen diren hizkuntza-akatsak landuko ditugu hiru ikastunidadietan. Hizkuntza-akatez gain, jokuak eta jolasak erak landu nahi ditugu.

1. *ikastunidadeia: Jolasak*
2. *ikastunidadeia: Jokuak*
3. *ikastunidadeia: kooperaziño-jolasak edo bakerako jolasak.*

*Hirugarren proposamen honetan **kooperaziño-jolasak** landuko ditugu.*

1- Helburuak:

1.1- Hizkuntza-akatsak:

Ikastunitate honek aurreko bixetan landutakua birpasatzeko aukeria emongo dosku:

➤ jolastu:

- *jolastu / jolas egin / ... ibili / ... egin / ... jardun*
- *jolastuko gara / jolastuko ~~dogu~~*
- *jolastuko gara? / jolast~~en~~ gara?*

➤ erronkak:

- *la zeñek egiten daben azkarrago! / A ver quién lo hace más rápido!*
- *Baietz egin! Ezetz asmau! / A que...!*

Horretaz aparte, jolasian erabiltzen diren hainbat esamolde landuko ditugu: **Adoria emotekuak, garrantzia kentzekuak, baloratzekuak, ...**

Aurreko proposamenetan bezela, gelan, gelen artian eta gurasoekin egiteko ariketak aurkezten dira. Diferentzia bakarra, hortaz, kooperaziño-jolasak direla landuko ditugunak.

1.2- Kooperaziño-jolasen gaiñian:

Mundu zabaleko jokuak. Jokuen mundu zabala. Liburuaren azalian honako hau irakurri leike:

Jokoak zero baturako joko gisa planteatzen badira, hots, batek irabazten duena besteak galtzen du. Jokoak aukera bakarra du: irabaztea, alegia. Garrantzitsua aritzea dela esango digute, baina txapela, bati, irabazleari, baino ez zaio ematen.

Badago jokoak planteatzeko beste era desberdin bat, batura zero ez duten joko gisa. Hau da, jokoan arituta jokalaririk guztiek irabaziko dute. Lagunak egin, jakinmina asetu, zerbait berria ezagutu, ondo pasatu, adimena landu, ondorioak ateratzen ikasi... dira jokoan aritzearen onura batzuk. Horrela bai, garrantzitsua aritzea izango da, eta irabaztea jokoaren aukera bat baino ez da izango.

80ko hamarkadan hasi zan kooperaziño-jolasen teorixia zabaltzen. Ordutik datoz jolas horren hiru izenak: *jolas alternatibuak, bakerako jolasak* eta *kooperaziño-jolasak*. Bakiaren aldeko mugimenduei oso lotuta, kooperaziño-jolasen teorixia premisa nagusi batian oiñarritzen da:

Gizakia ez da berez lehiakorra, lehia zalia.

Jokaera lehiakorak eta kooperaziño-jokaerak eguneroko bizitzan ikasi egiten ditu gizakiak.

Sinisgogorak jakin egin bihar dabe egon badarela kooperaziñuan oiñarritzen diren gizartiak, esate baterako: Inuit, Papua, eta Maori. Gizarte horretan leialtasuna eta elkartasuna dira balore nagusixak, eta eguneroko elkarbizitzan agertzen dira. Urriñera juan barik be, hortxe bertan dauzkagu Euskal Herriko "auzolanak": inguruko laguntza barik nekez etarako ziren aurrera erretako baserrixak, ... Hala ta be, jostailuen salmentak aztertzen baditugu, begi bistan azalduko jaku egungo gizartiaren joeria: kooperaziñotik gero eta urriñago.

-Bale-baleka ibilliko gara ala soka saltuan egingo dogu?



Gaztiak gizarte lehiakor honetarako gertau bihar baditugu be, kooperaziño eta laguntza jarrerak ezagutziak emongo dotse norbere jokaeria aukeratzeko eta erabakitzeko askatasuna. Izan be, umiengan elkarri laguntzia eta sentimendu onak garatzia da kooperaziño-jolasen helburua; eta hainbat askatasunetan oiñarritzen dira. Hau da, zenbait presiñotatik libre sentiduko dira gaztiak:

Lehiatzetik aske: Jolas hauen ezaugarri nagusixa beren egitura da. Ez dago irabazlerik, ez dago bukaeran bakarrik geldituko dan pertsonarik. Emaitzak ez du hainbesteko garrantzirik; izan be emaitzari gehiegizko garrantzia emoten dotsagunian tranpak, azpijokuak, iruzurrak... egiten ditugu, kaltiak be bai bihar izanez gero, bai bestiei eta bai norberari.

Sortzeko aske: Kooperaziño-jolasak ez dira zorrotzak, malguak baizik. Jolas bera modu desberdinetara moldatzeko gonbita egiten jakue; eta horrela aldaeria eta jolas berrixak sortuko ditue gaztiak erak.

Bazterketetatik aske: Kanporatzen eta baztertzen daben jolasak oso gogorrek dira, batez be jasan bihar izaten dabenarendako (eta askotan pertsona bera da behin eta berriz kanpuan gelditzen dana). Kooperaziño-jolasetan ez da egongo huts egiterik, kritikarik, bazterketarik.

Aukeratzeko aske: Gaztiei aukerak eskaintziak –nahiz eta hauek txikixak izan— eurenaganako errespetua erakusten dau, eta eurekin daukagun konfiantzia baieztatzen dotse. Jolasa zela hobetu galdetuko dotsegu, arazuak agertzen direnian eurei galdetuko dotsegu zela konpondu leizkien. Gehixenetan euren erantzunak eta proposamenak gizatasun handikuak izango dira.

Erasuetatik aske: Kooperaziño-jolasetan ez dago ez erasotzeko ez miñik egiteko aukerarik.

2- Bibliografixia

(Ez dogu euskaraz ezer topau. Ondorengo liburuetan agertzen diren jolas batzuk **Euskal Girotze Barnetegiak** liburuan dare itzulita. Baiña ez dago kooperaziño-jolasak batzen dituan atalik, eta beste ataletan sakabanatuta dare, hortaz, topatzeko nahiko nekeza.)

Libres para cooperar, libres para crear. T. Orlick. Paidotribo. Jolasen oiñarri teorikuz gain, jolas bilduma ederra. Liburuak, edadiaren arabera sailkatziak gain, aktibitate maillaren arabera be multzokatzen ditu jolasak: oso aktibuak, aktibuak, lasaixak...

101 juegos. Juegos no competitivos. R. M^a Guitart Aced. Grao, 1990.

Jolas bilduma. Bukaeran jolasen sailkapena dakar: tokixa, partehartzailliak, jatorrixa eta edadiaren arabera.

La alternativa del juego I. P. Cascon y C. M. Beristain.

Taldiaren garapenari begira antolautako fitxa didaktikuak: elkar ezagutzetik gatazkak konpontziari begirakuak.

La alternativa del juego II (juegos y dinámicas de educación para la paz). P. Cascon. 1990.

Aurrekuaren jarraipena. Aitatutako atalei "Jausgailluarekin egiteko jolasak" gehitu bihar jakue.

Interneten billatzeko: <http://www.pangea.org/edualter/material/juguete/>
<http://www.efdeportes.com/efd9/jue9.htm>
<http://www.terra.es/personal4/lapeonza/cooperat.htm>
<http://www.cientec.or.cr/matematica/juegos.html>
http://www.ctv.es/USERS/avicent/Juegos_paz/

-Bale-baleka ibilliko gara ala soka saltuan egingo dogu?



3- Akatsaren azalpena eta bertako eredu zuzenak

Esan bezela, honetan proposatzen diren ariketetan aurreko unidadietan landutako edukixak birpasatuko ditugu:

3.1- Jolastu / jolas egin / ... ibilli / ... egin / ... jardun: ikus. 2001-2002ko 1. unidadia.

3.2- Jolastuko gara / jolastuko dogu: ikus. 2001-2002ko 1. unidadia.

3.3- Jolastuko gara? / jolasten gara?: ikus. 2001-2002ko 1. unidadia.

3.4- la zeñek egiten daben azkarrago! / A ver quién lo hace más rápido!: ikus. 2001-2002ko 1. unidadia.

3.5- Baietz egin! Ezetz asmau! / A que ...!: ikus. 2001-2002ko 2. unidadia.

Horretaz aparte, ondorengiak landuko ditugu:

3.6- Esamoldiak.

Kooperaziño-jolasetan jarduterakuan hainbat esamolde lagungarri suertauko jaku. Hemen batzuk, helburuaren arabera sailkatuta.

1- Ustekabia adierazten dabenak

- **Kontxo, kontxo!**
- **Hara!**

2- Poza adierazten dabenak:

- *Hau poza!*
- *Zelako ondo!*
- *Gora gu eta gutarrak!*
- *Ze ondo!*

3- Arreta eskatzekuak:

- *Et, et, et! Kontuz!*
- *la, ba(da)!*
- *Adi danok!*
- *Ei, entzun!*

4- Adoria emotekuak:

- *Hori, hori! Segi horrela!*
- *Hori dok/don eta!*
- *Segi, segi!*
- *Aupa!*
- *Eutsi gogor!*
- *Portau haiz/zarete!*
- *Hola, hola!*
- *Aurrera!*
- *Hi bai mutila! Hi bai neskia!*
- *Hire modukorik etxak/n!*
- *Segi, ondo habil/zabitz eta!*

-Bale-baleka ibilliko gara ala soka saltuan egingo dogu?



5- Amore emotekuak:

- *Ezin dot gehixago!*
- *Pot eginda nago*
- *Mangauta nago!*
- *Lehertuta nago!*
- *Emoten dot / dogu...! (gaztelaniazko "me rindo" esateko)*
- *Jota nago!*
- *Neka-neka eginda nago!*
- *Manga-manga eginda nago!*
- *Ez nabil! (ez dotela jarraitu nahi adierazteko)*

6- Aukera ona adierazteko:

- *Zelako aukeria*
- *Hau dok/n mahatsa!*
- *Hau dok/n amama!*
- *Hauxe dok/n txorixa eskura etorri!*
- *Hau bai aukeria!!*
- *Hau dok/n hau!*
- *Hau dok/n ona!*
- *Hau da izatekua!*

3.7- Esaera zaharrak:

- *Hasarretzen danak, adiskidetzen lanak*
- *Lagun ona galtzia baiño, hortzak galtzia hobe.*
- *Munduan elkarri laguntzeko gare.*
- *Ongi bizitzeko maitatu, aguantatu eta barkatu.*
- *Solas goxuak, adiskidiak egin eta etsaiak eztitu*
- *Zuhurrak, amore emon eta garaitu.*
- *Batasunak indarra dakar.*
- *Bakerik txarrena, hasarrerik onena baiño hobia.*

-Bale-baleka ibilliko gara ala soka saltuan egingo dogu?



4- Hizkuntza-taillerra:

4.1- Helburuak:

- Eguneroko klase-dinamikan jolasak sartzia.
- Kooperaziño-jolasak ikasi eta erakusten ikastia.
- Jolasen gaiñian eta jolasian egiterakuan edukitzen ditugun jarrerren gaiñian hausnartzia.
- Akatsen eredu zuzenak erabiltzeko aukerak emotia.
- Jolasian dabitzenian euskeriaren erabillera zuzena ziurtatzia.

Ariketa sueltuak dira danak, eta denporapasa moduan erabili leizke, klasian askotan bost minutuko tartiak aprobetxatzeko. Jolas-orduak edota jolas-egunak antolau leizke. Gelan bertan, beste geleskin batera, gurasuak gonbidautu, ...

Irakasliak proposautako jolasak danon partehartzia billauko dau, iñor baztertu barik, gaitasuna, trebetasuna eta eskarmentua kontuan hartu barik. Proposamenak giro atsegiña sortuko dau eta ahalegin guztiak talde-erronkak gairiditzero bideratuko dira. Jolasa guztion ekarpenetan oiñarrituko da, ez elkarren kontra jardutian.

Hortaz, hauexek dira kooperaziño-jolasaren ezaugarriak:

- Guztion partehartzia eskatzen dau. Ez da iñor kanpua lagako.
- Ez dago irabazlerik, ezta galtzailerik be.
- Jolasian ez da iñor baztartuko.
- Danok batera jardungo dabe helburua lortzeko.
- Jolasak ez dau iñolako erasorik bultzatzen, ezta lehiaketarik be.

Eta gaiñera,

- Konponbidiak billatzeko eta sortzeko gaitasuna bultzatzen dau.
- Aldamenekua kontuan hartzia eskatzen dau.
- Sentimentuak, iritzixak, kezkek, asmuak, estimua, ... agertzera bultzatzen dau.

HH:

Zalantza barik esan geinke edade honetan batez be jolasian egin bihar dabela. Hortaz, jolasian egiteko aukera ugari eta zabala eskaiñiko dotsegu. Horrek ez dau esan nahi ez dogula jolas hauen inguruko hausnarketia bultzatuko; izan be, harrituta geratuko gara gaztienak egindako baloraziñuekin. Ez ditugu azken horrek bideratu biharko, jolas egin ondoren euren iritzixa esateko eskatuko dotsegu, besterik ez.

LH:

Jolastiaz gain, kooperaziño-jolasak eta lehiaketa-jolasak aztertzero bultzatuko ditugu. Bigarren fase baten, lehiaketa-jolasak kooperaziño-jolas bihurtzeko eskatuko dotsegu. Izan be, jolas gehixenak, aldaketa txiki batzuekin kooperaziño-jolas bihurtu leizke.

DBH:

Jolasian egitia, jolasak aztertzia, kooperaziño jolasak sortzia, eta gizartiar buruzko hausnarketia eskatuko dotsegu nagusixei.

Gurasuekin:

Aurreko unidadietan bezela, gurasuekin egiteko jolasak bereiztuko ditugu. Bi modutan egin leizke: lehenengua, jolaserako momentuak antolatu, jolaserako beste barik, eta tarte horretan kooperaziño-jolasetan hartuko dabe parte. Bigarrena, jolastiaz gain, gurasuen artian jolasen inguruko hausnarketia bideratzia.

-Bale-baleka ibilliko gara ala soka saltuan egingo dogu?



4.2- Metodologixia:

4.2.1- HAUR HEZKUNTZA:

Helburuak: *Jolas egitia*
Jolasak baloratzia, jolasen gaiñeko iritzixa emotia.
Jolasak hobetzeko proposamenak egitia.

Irakasliak ez ditu jolasak izendatuko, ezta horren gaiñeko azalpenak emongo be. Jolasian hasiko da eta umiek bere eredia jarraituko dabe. Kantuak edo musikia erabiltzia komenigarria da.

Jolasian oztopuak edota arazuak agertuko balira, umiei eurei galdetuko dotse zela konpondu. Eta arazuak sortu ezian be, jolasak hobetzeko ideiak eskatuko dotse. Horrela jolasaren hainbat aldaera sortuko ditue ikasliek.

Horretaz gain, gaztetxuei, jolasak baloratzeko eskatuko dotsegu. Horretarako jolasian hasi aurretik, hiruna fitxa banatuko dotsegu (gorrixa, horixa eta berdia). Jolasa bukatutakuan fitxak eskuan hartzeko eskatuko dotsegu eta fitxen esanahixak azalduko dotsegu:

Berdia = asko gustau jat

Horixa = ondo dago

Gorrixa = ez jat gustau

4.2.2- LEHEN HEZKUNTZA:

Helburuak: *Jolasian egitia*
Jolasak baloratzia
Jolasak hobetzeko proposamenak egitia
Norberaren jarrerak aztertzea
Jokuak eta lehiaketa-jolasak kooperaziño-jolas bihurtzia

4.2.2.1- Jolasian egitia: Eranskiñetan, hainbat jolas proposatzen dira, beste barik, jolasian egiteko.

4.2.2.2- Jolasak baloratu eta aztertzeke:

- **Aulkixen jokua** eta **Kooperaziño-aulki musikalak:** Hauekin, lehiaketa eta kooperaziñua alderatzeko aukeria emongo dotsegu ikasliei.

A) Aulkixen jokua: Betikua. Aulkixak jarriko dira, beti daren ikasliak baino aulki bat gutxiago, eta musikia gelditutakuan, jartzen saiatuko dira eta aulkirik gabe gelditzen dana kanporatua izango da eta aulki bat kenduko da. Horrela bakar bat, irabazlia gelditu arte.

B) Kooperaziño-aulki musikalak: Aulkixak aurrekuaren moduan jarriko dira, eta musikia gelditzen dan bakoitzian aulki bat gutxiago geldituko da. Baiña honetan ez dago kanporatzerik, hauxe da erronka: daren aulkixetan danak sartu bihar dira, lurra ikutu barik eta 20 segundu horrela egon. Aulki gutxi gelditzen direnien, dexente zailago bihurtzen da, eta lortzeko, biharbada, saiakera bat baiño gehixago egin biharko dabe, eta estrategiak adostu biharko ditue.

























C) Jolasaren bi aldaerak probau ondoren, euren arteko diferentziak aztertzeke eskatuko dotsegu, eta bakoitzaren alde onak eta txarrak zerrendatu.

-Bale-baleka ibilliko gara ala soka saltuan egingo dogu?



- **Jolasen baloraziñua:** Saio baten hainbat jolas (kooperaziño-jolasak, eta lehiaketa-jolasak edo jokuak) egingo dira. Baiña ikasle batzuek “behatzaille” lana egingo dabe. Bukatutakuan fitxetan jasotako datuak komentauko ditue eta danon artian ondorixuak etara.

Baloraziño-fitxia:

JOLASAK ETA JOKUAK BALORATZEKO FITXIA					
1	Jolasa/jokua bitartian, ze aurpegi zeuken partehartzailliak?				
2	Zer moduz tratau dabe elkar?				
3	Danak ibili dira gustora?				
4	Danak hartu dabe parte?				
5				
6	Baloraziño orokorra				

4.2.2.3- Lehiaketa jolasak eta jokuak kooperaziño-jolas bihurtu:

Hasieran, jolasak hobetzeko proposamenak eskatu dotsegu, orain lehiaketa gainditzeko proposamenak dira billatu biharrekuak. Seguruasko ez dabe hori egiteko laguntzarik biharko, baiña badaezpada be, hona hemen estrategia batzuk:

- *Danak ikutu bihar dabe baloia: (atera jaurti baiño lehen, adibidez)*
- *Tantua egiten dabena beste taldera pasauko da.*
- *Ez dago tantorik (helburua baloia mugimenduan mantentzia da, ez tantua egitia)*
- *Norbanakuen puntuaziñua barik, taldiarena hartuko da kontuan: saltuak egiterakuan, esate baterako, danak egindakua batu taldiaren emaitza lortzeko.*

4.2.2.4- Norbere jarrerak eta bestienak aztertu:

- a) Gatazkak: Jolasian egiterakuan, gatazkak, arazuak, lehia, hasarriak sortuko dira. Batzuetan lagungarria izaten da une hori “izoztia”. Bakoitza dagan tokixan eta moduan gelditzeko eskatuko

-Bale-baleka ibilliko gara ala soka saltuan egingo dogu?



dotsegu, audio-kaseta balitz moduan, gertautakua zehatz-mehatz errepikatzeko eskatuko dotsegu. Errepikapenian honetxek dira irakasliak egin biharreko galderak:

Zergatik egin dozu hori?

Egindakuan hobeto sentitu zara?

Ondo pasatzen lagundu dosku horrek?

b) Rol-jolasak:

Eguneroko gatazkak aztertzeke oso baliagarriak izan leizke rol-jolasak. "Miña" izenekua, esate baterako.

- 1- "Miña" gaixa aztergaitzat hartuko dogu. Miñaren aurrian ez dogula danok berdin jokatzeko esango dotsagu ikasliei. Eta hori ikusteko, hainbat egoera dramatizauko dabe.
- 2- Taldeka banatuko dira irakasliak: lau laukote, bi bikote eta hiru hirukote. Taldian 26 baiño gehixago badira, batzuk begirale gisa jardun leikie, edo egoera batzuk errepikau leizke.
- 3- Taldiei egoerak eman, eta minutu batzuk laga gertatzeko.
- 4- Miñari buruzko fitxa banatu, eta banaka erantzun ondoren, danon artian eztabaidatuko dabe.

Fitxa: Zeiñi egiten dotsa min?

- 1) Lehenengo lau egoeretan nahi gabe egin da min fisikua. Hurrengo bixetan miña ez da fisikua izan, emozionala baizik. Azken hiruretan nahita egin da min fisikua.
 - a. Danen artian zein pentsau jatzu errealena?
 - b. Zein ez litzateke gertauko?
- 2) Egoeraren baten negar egingo dau bateren batek? Zergatik? Zergatik ez dabe bestiak be negar egiten? Egindako miñak dakar negar egitia ala beste zeozerk? Zerk?
- 3) Zein egoeratan izan da erantzuna erasotzia? Zergatik? Zerk bultzatzen dau pertsona bat jasandako miña "buelatzera"? Badago alderik mutillen eta nesken artian?
- 4) Bateren bat saiatu da gauzak baretzen? Zein? Nesken ala mutillen artian?
- 5) Horrelako egoeren aurrian, gauza bera espero dau gizartiak neskengandik eta mutillengandik?

4.2.3- DBH:

Helburuak: *Jolasian egitia*
Jolasak baloratzia
Jolasak hobetzeko proposamenak egitia
Norberaren jarrerak aztertzia
Jokuak eta lehiaketa-jolasak kooperaziño-jolas bihurtzia
Kooperaziñuan eta lehiaketian gaiñian hausnartzia.

4.2.3.1- Jolasian egitia: Eranskiñetan, hainbat jolas proposatzen dira, beste barik, jolasian egiteko.

4.2.3.2- Jokua baloratu eta aztertzeke:

Irakasliak ikaslien gustoko kirol bat aukeratuko dau eta partidua jokatzeko proposatuko dotse ikasliei: "hartu baloiak eta hasi jokatzeko". Irakasliak lanpetuarena egingo dau, baiña adi-adi

-Bale-baleka ibilliko gara ala soka saltuan egingo dogu?



entzungo dau gertatzen dana (zela osatu diran taldiak, bateren bat baztartuta gelditu dan, joku garbi eta zikiñak, tantua egindakuan daren erreakziñuak, ...). Denporatxo bat jokatu ondoren jokua gelditu egingo dau irakasliak, eta borobillian jartzeko eskatuko dotse ikasliei. Halako elkarrizketia bideratuko dau irakasliak:

10 minutu jokatu dozue. Jaiki dedila baloia oraindio ikutu ez dabena.

Zer dala eta baztatu dira lagun batzuk jokotik?

Zergatik hasi zarete ika-mikatan.... momentuan?

Zergatik esan dozu "...”?

...

Zertarako jokatzen dozue? (“Ondo pasatzeko, dibertitzeko” erantzuten dabe normalian)

Dibertigarrixa da baztarta gelditzia?

Eztabaidatzia eta hasarretzia dibertigarrixa da?

Zela praktikau eta hobetuko dabe baloia ikutzen ez dabenak?

Ez al da danon arduria danok izatia ikasteko eta praktikatzeko aukerak?

Zer egin geinke jokuan danok ondo pasatzeko eta danok parte hartzeko?

Ondoren, taldeka berba egindakuaeren gaiñian hausnartuko dabe, nahi izanez gero erantzunak idatziz jaso, eta ondorixuak klase osuari aurkeztuko jaue.

4.2.3.3- Kooperaziño-jolasetan izaten ditugun jarrerak aztertu:

Edade hauetan, lehiakortasuna oso barneratuta daukate gaztiak, eta nahiz eta kooperaziño-jolasa proposatu, ez da harrizkua izango jarrera lehiakorak agertzia. Hortaz, zenbait jolasetan ikasle batzuk “begirale” izendauko ditugu, jarrerak aztertzeko. Proposatutako edozeiñekin egin leikien arren, horretarako aproposak diren jolasak hauexek dira:

- Kooperaziñoako laukixak
- Irla desertua
- Kooperaziñoako pelota patinetia
- Pentsau presa barik, ekin gelditu barik!

Hauetan, arauak errespetau bihar ditue, eta arazuei irtenbidia emon. Momentu horretan sortuko dira seguru asko gatazkak eta jarrera lehiakorak.

Begiraliak eranskiñetan dagan behaketa-fitxia erabilli leikie, edo eurak sortutako beste bat.

Fitxia lehenengo aldixan erabilli baiño lehen, komenigarrixa izango da begiraliekin aztertzia eta bihar izanez gero zehaztia zer jasotzen dan lerro bakoitzian.

Jolasa egin ondoren, begiraliak jasotakuaren berri emongo dotsie gainontzeko guztiei eta danen artian hausnartu egingo dabe:

Zein jarrerak laguntzen dau konponbidera aillegatzen eta zeñek ez? Zergatik?

Zer egin geinke probetxugarriak ez diren jarrerak aldatzeko?

Zer egin geinke elkarri laguntzeko?

-Bale-baleka ibilliko gara ala soka saltuan egingo dogu?



Jolasa: Bihotz-irlak

Edadia: HH

Materiala: kartulinez egindako lau figura haundi (bihotzak, laukixak, izarrak...)

Kartulina gorrixarekin egindako 4 bihotz haundi eta musikia biharko ditugu.

Bihotzak lurrian jarriko ditugu, musikia ipini eta umiak saltoka ibilli daitezela gelan zihar. Musikia gelditzen danean, ume guztiak saiatu bihar dira bihetz bat (hanketako bihetz bat) jartzen bihotz-irla baten. Musikiak jotzen daben bakoitzian bihotz bat kendu bihar da, ume danak euren bihetzak bihotz bakarrian sartzen saiatu arte.

Jakiña, ez zan batere erraza izan irlara danok batera aillegatzia. Orduan, Robertak galdetu zeban: “Zer egin geinke?” Eta ume bati akordau jakon danok etzan eta hankak erdixan jartzia. Eta primeran juan zan!

Neskatilla batek be bota zeban: “Eta zergatik ez dogu jartzen hankia bihotz bat imajinatzen dogun tokixan?” Umiaren ideia errespetatzearen eta sormena sustatzeko asmotan, Robertak erantzun zeban: “Tira, saiatu egingo gara!” Musikia jotzen eta umiak saltoka zebitzen bitartian, neure buruari galdetzen notsan zela juango ete zan Bihotz Irudikatuen jolas hau. Eta musikia gelditu zanian, ume danak bata bestiaren onduan pillau eta erdixan irudikatutako bihotz baten gaiñian jarri zituen hankak. Ume batek orduan: “E, horrela hobe da”. Hobe zan, bai, seguruasko irudikatutako bihotzaren neurrixa segituan egokitu leikielako umien hanka guztiak bere barruan hartzeko.

Jolas honen beste aldaera batzuk be sortu leizke, egunkari, esterilla, ipurdipeko kuxin, toalla, kapela, mahai eta abarrekin.

Jolasa: Kooperaziñoko aulki-aldaketak. Aulki-jokua.

Edadia: HH

Materiala: aulkixak eta musikia

Jolas hau “Kooperaziñoko aulki musikalak” jolasaren aldaera bat da. Hasieran, aulki bat dago hiru edo lau jokalariko (kopurua, jakiña, egokitu egin leike; ume txikixen kasuan bi jokalariko aulki bat bihar da). Aulkixak gelan sakabanatu, borobil antzeko formia emonaz, eta ume bakoitzak konpartitzeko aulki bat topatzen saiatu biharko dau. Konpartitzen daben aulki gaiñian zela edo hala darenian, aldaketak darella esango jakue: “Txakurra daukenak aurreko aulkira pasa daitezela”; “Ille luzia daukenak bi aulki aurrerago juan bihar dabe”; “Familixan zaretan ume beste aulki aurreratu”... Aldaeretakako ideiak bukaeziañak dira, eta gozamina areagotzeko aulki batzuetako umiei euren “aginduak” asmatzeko be eskatu leikixue. Jolas hau bestiengandik zerbait ikasteko modua izan leike. Helduak eta umiak batera egiten badabe jolasian, heldu batzuk lau hankan jarri leizke aulkixarena egiteko.

Jolasa: Korapilluak

Edadia: HH

Materiala: musikia

Oso jolas dibertigarria da lau, bost edo sei urteko umiekin jolasian egiteko eta, gehixago oraindio, ume bakoitzak heldu batekin bikotia egiten dabenian. Partehartzailiendako jarraibidiak errazak dira: elkartu zure ukalonduek beste baten ukalonduekin; eta belaunak, orkatillak, belarrixak, lepuak, zilborrak... Txikixenak, normalian, esandako lehen atala ikutu eta hurrengua egiteko lehenengua apurtu egiten dabe, bai gorputza gorputzarekin edo eskua gorputzarekin izan. Nagusixenak, berriz, aldi berian bi edo hiru lotura mantendu leikie. Adibidez, bihetzak ikutu leizkie, horiek elkartuta mantendu eta sorbaldak ikutu. Ondoren, aurreko loturak mantenduz, beste atal bat ikutu leikie (esate baterako, euren buruen alde bixak). Edo eskatu leikixue lehenengo loturia apurtzia, bigarrena mantentzia eta hirugarren bat gehitzia. Korapillo ugari sortu ahal izango dituzu bikotien artian edo taldian; eta jolasaren aldaera berrixa sortzeko, saiatu leike korapillautu ibiltzen.

-Bale-baleka ibilliko gara ala soka saltuan egingo dogu?



Jolasa: Lurrean jira-biraka, hanketako bihetz potoluak gurutzatuta

Edadia: HH

Materiala: (ez dogu ezer bihar)

Ikaskide guztiak etzan egingo dira, oiñazpikak elkarren kontra dituela. Zein aldetara buelta emongo daben aukeratu ondoren, alde horretara gelditzen diren hanketako bihetz potoluak gurutzatu eta bueltaka hasi. Nahi danian, bestaldera bueltaka be hasi leike, baiña horretarako lehenengo hanketako bihetzak askatu eta beste hanketakuak gurutzatu bihar dira.

Jolasa: Palomita likin gehixago

Edadia: HH

Materiala: (ez dogu ezer bihar)

Jolas honetan, umiak arto bihurtuko dira, eztanda egingo daben arto-aliak izango dira. Jolasian hasteko orduan, imaginatuko dogu lurra zartagin baten azpialde berua dala. Ume guztiak kokoriko jarriko dira lurrian eta sua piztuko dogu. Lurra gero eta beruago jarriko da eta umiak saltoka hasiko dira daren tokixan bertan, eztanda egiñaz bezala, nahi beste salto egiñaz. Palomiten moduan, ume guztiak eztanda egin ondoren, karamelua irudikatu eta gaiñetik botako dotsegu, likiñak jarri daitezten. Horrela, umiak salto (edo eztanda) egin eta beste norbaiten kontra juaten diranean, itsatsita geratuko dira. Eta norbaitekin elkartu ondoren, saltoka jarraituko dabe itsasteko beste lagun batzuen billa, danok itsatsi eta palomita saltari erraldoi baten modura geratu arte.

Jakin dogu, behin, ume bat makurtuta lurrian geldi geratu zela, eta zergatik ez zeban saltorik egiten galdetu zotsenian erantzun ei zeban zartagiñera itsatsita zeguala. Horrelako zeeze gertatuz gero, karamelu pixka bat bota gaiñera eta beste lagun likin batzuk be bialdu askatzen laguntzeko.

Jolasa: Dortoka erraldoia

Edadia: HH

Materiala: koltxoneta, kartoi haundi bat... oskol lanak egiteko modukua

7-8 laguneko taldetan banatu. Talde-dortoka bakoitzeko partaidiak 4 hankan jarriko dira oskol haundixaren azpitan, eta dortokari mobidu eragiten saiatuko dira. Nahi bada, mendi bat jarriko dotsegu igotzeko, edo banku bat, edo oztopuak dauzkan ibilbide bat egin biharko dabe, beti be, euren eskola galdu barik.

Jolasa: Oiñetako ibiltarixak

Edadia: HH

Materiala: (ez dogu ezer bihar)

Partaide bakoitzak oiñetako bat kendu eta pilla baten lagako dau. Ondoren, bakoitzak oiñetako bat hartuko dau, aliritzira, eta oiñetakua eskuan dabela elkarri eskuak emon eta borobil bat egingo dabe. Eskuan dauken oiñetakuaren jabia zein dan jakindakuan, euren albokoren bati eskatuko dotse: “mesedez, pasaixozu oiñetako hau...”. Horrela, oiñetakuen jua-entorrixa bideratu bihar da, borobilla apurtu barik. Bakoitzak bere oiñetakua berreskuratu dabenian, berriz hasi leike.

-Bale-baleka ibilliko gara ala soka saltuan egingo dogu?



Jolasa: Matxinsaltua

Edadia: HH

Materiala: mantia eta baloia

Partaidiak manta baten inguruan jarriko dira eta pelota edo baloi bati mantaren gainian salto eragiten saiatuko dira (matxinsaltua). Aldera batzuk be badauzka jolas honek: pelotia mantaren albuetatik biraka eruatan saiatu, edo mantiari zulo bat egin (pelotiaren neurri berekua) eta bertatik sartzen saiatu, edo saski modukoren bat jarri eta saskiratzen saiatu,...

Jolasa: Laguna altxatzen

Edadia: HH

Materiala: (ez dogu ezer bihar)

Umiak biñaka jarriko dira, bata bestiaren parian lurrian, hanka-azpizak lurraren kontra eta hanka-puntak elkarri ikutzen. Belaunak tolostuta aurreraka egin, elkarri eskuetatik heldu eta tiratuz, batera jaikitzen ahaleginduko dira. Ondoren, berriz jartzen saiatuko dira.

Jolasa: Lapitza botillan sartzen

Edadia: HH

Materiala: lapitza, harixa eta botilla bat

Lapitz baten albo baten lotuko dira harixak (fiñak eta danak luzera berekuak). Zenbat partaide diran hainbat hari lotuko dira, eta bakoitzak hari bati heldu (lotuta ez dagan aldetik) eta tinko eutsiko dotse, luze-luze, lapitzaren inguruan harixen borobil bat osatuz. Helburua: danon artian eta harixari tinko eutsita, lapitza zutik dagan botilla baten sartzia da, botilla-lepua ikutu barik, harien tensiñuarekin jokatuaz. Zutik edo jarrita egin leike.

Jolasa: Jarlekua antolatzen

Edadia: LH

Materiala: banku luze bat (edo 20 cm-ko zabaleria daukan marra bat margotu lurrian)

Partaide guztiak bankuan jarriko dira. Iñor ezin da jeitsi. Danak jarrita darella jolas arauak esango dira: edadiaren arabera ordenatu, edo jaiotegunaren arabera, edo alturiaren arabera, edo..., baiña bankutik irten barik eta iñor jausi barik.

Jolasa: Uztaia

Edadia: LH

Materiala: psikomotrizitateko uztaiak

Uztaia lurrian jarri eta 5-6 ume inguruan jarriko dira, bata bestiaren kontra, besuak ondokuaren sorbaldetan jarrita, uztaia hankapian dabela.

Helburua: uztaia jasotzia, eskuak erabili barik, eta danak burua sartzia uztaia barruan.

-Bale-baleka ibilliko gara ala soka saltuan egingo dogu?



Jolasa: Astua

Edadia: LH

Materiala: egunkari zahar batzuk (astua gidatzeko)

4-5 laguneko taldiak egingo dira eta talde bakoitzari asto bat izendatuko dotsagu. Astuei esango dotsegu (isilixan, bestiak entzun barik) bakarrik hitz goxuei, laztanei eta antzerakuei kasu egiteko (zakarkerixei ez). Taldeko beste partaidiei, berriz, ezin dabela danen artian astua hartu eta eruan, baiña helburua dala astua lehenbailehen helmugara eruatia. Astuak lau hankan egingo dabe aurrera.

Jolasa: Olatuak

Edadia: LH

Materiala: (ez dogu ezer bihar)

Partaide guztiak, bat izan ezik, ahoz behera etzango dira lurrian, mokorrek bata bestiaren kontra eta ondo-onduan. Beste partaidia, barkua, perpendikular etzango da lurrekuen gainian. Azpikuak, olatuak egiñaz, "barkua" beste muturrera bialtzen saiatuko dira. Barkua beste baztarrera aillegatzen danielan, lurrian etzango da eta olatuari hasiera emon dotsan umia bihurtuko da barku eta bestiak beste baztarrera eruatzen saiatuko dira.

Jolasa: Urpekuntziko lagunak

Edadia: LH

Materiala: begixak tapatzeko trapuak

Arau edo seiñale batzuk jarriko dira: sorbaldan ikutziak (ikutu bakarrak) alde horretara juateko esan nahi dau, bizkarraldian ikutu ezker aurreruntz juateko, bi aldiz ikutu ezker (bi kasuetan) mobimendua haundixagua izatia esan nahi dau, buruan emon ezker eskuak aurreruntz botatzeko eta beste urpekuntzi bati eskuak emotia esan nahi dau. Garrantzitsua da aginduak azkar emotia.

4-5 laguneko talde batzuk egingo dira, illaran, bata bestiaren atzian jarrita, sorbaldetatik helduta. Atzekuak izan ezian, beste danak begixak tapauta (edo itxita) edukiko ditue. Atzekuak emongo ditu aginduak, aurretik aitaturako seiñalien bidez. Hortaz, atzekuak emondako seiñalia illarako lehen lagunari aillegau bihar jako, eta honek mobimendua egin ondoren, poliki-poliki talde guztiak elkartuko dira, urpekuntzi haundi bat osatu arte. Horretarako, illara bateko lehenak beste bateko azkenari heldu bihar dotsa eta, orduan, azken horrek begixak itxi bihar ditu, eta osatu berri dan urpekuntziko azkena izango da gidari berrixa.

Aldaera bat: urpekuntzixak jarraitu biharreko ibilbide bat jarri leike, oztopuak gaindituz juan daitezen.

Jolas: Trena martxan

Edadia: LH

Materiala: hondartzako baloi bana eta musikia

Musikia jarri, bakoitzari hondartzako baloi bana emon eta tren bat osatu deixela esan. Talde sentimentua (elkarlanian jarduteko gogua) eta baloiak izango dira bagoiak elkar lotzeko puntu bakarra. Trena osatu dabenian, besuak beheruntz jarri bihar dituela esan, eta baloia aurreko lagunaren bizkarraldera itsatsita daguala, baloiak ez jausteko ahalegiña egingo dabe. Hasieran bi bagoiko trenak osatuko dira, aurrekuak baloia eskuetan dabela eta atzekuak aurrekuaren bizkarraren kontra (eskuekin heldu barik). Musikiarekin mobidu egingo dira, eta beste bagoi batzuekin elkartuko dira, tren luze bat osatu arte, edo, kontu haundiz ibilita, tren borobila osatu arte.

Jolas polita izan leike, talde haundi batek borobil bat osatu deixen.

-Bale-baleka ibilliko gara ala soka saltuan egingo dogu?



Jolasa: Urdiña ikutu

Edadia: LH

Materiala: (ez dogu ezer bihar)

6-8 jokalarri borobillian jarriko dira. Bateren batek emongo ditu arauak: lehenengo, jokalarri danak euren eskumako eskuarekin beste baten zeoze urdiña (berdin da zer: oiñetakuak daukan apaingarri urdin bat, praka urdiña...) ikutu bihar dabe eta horrela egon. Gero, ezkerreko eskuak zeoze horixa ikutu bihar dau eta horrela eduki. Ezkerreko hankiarekin zeoze beltza ikutu bihar da eta eskumakuarekin zeoze marroi kolorekoa. Buruarekin zeoze gorrixa be ikutu leike, eta taldiak oraindiko be onartzen badau, sorbaldarekin zeoze berde kolorekoa ikutzeko esan leikixue.

Koloriak, jakiña, aldatu egin leizke urtaruaren arabera. Udaran, seguruenez, zurixak eta horixak gehixago egongo dira, baiña hasteko urdiña ikutzea ondo legoke, gure gizartian urdiña oso ohizkoa dalako (praka bakeruak...). Azkenaldixan taldian gutxi dagan kolore bat esan leike, taldiak luzatu biharra izan deixen. Partaide guztiak elkarri lotuta, kiribilduta bukatuko dabe eta batzuetan korapillo galantak be sortuko dira, baiña barre-algarak be franko izango dira.

Jolasa: Kontuz puzkarrekin!

Edadia: LH

Materiala: puxikak

Jokalarriak biñaka jarri, elkarri bizkarraldia emonda, makurtu eta eskuak aurrealdian jarriko ditue (belaunak tolostuta). Ondoren, puxika edo pelota bat jarriko dabe ipurdien artian eta hori jausi barik mobitzen saiatuko dira. Haruntz eta honuntz, oiñez edo saltoka, dabitzen bitartian euren hanka tartetik begiratu leikie. Jolasa puzkar haundi batekin bukatzeko, partaide guztiak ipurdiak elkarren kontrara eruan leikie, puxikak eztanda egin arte.

Jolasa: Taldian altxatzen

Edadia: LH

Materiala: (ez dogu ezer bihar)

Lau jokalarri lurrian jarriko dira, borobillian. Besuetatik edo eskuetatik helduta, danak batera jaikitze ahalegiña egingo dabe. Ondo badoakixe, hurrenguan 6-8 laguneko borobillak egin leizke. Zenbat eta jende gehixago, zaillagua da. Polita da probak egitia eta altxatzeko modu desberdinak topatzia; batzuetan besuetatik edo ukalonduetatik aldamenekuei heltzia izan leike, edo eskumuturretatik heltzia albokuaren hurrenguari,...

Jolasa: Kooperaziñorako mahai musikalak

Edadia: LH

Materiala: mahaixak.

Aulkixen jolasaren antzerakua da, baiña orainguan jolasak aurrera egin ahala aulkixak kendu biharrean ikas-mahaixak kenduko dira.

Helburua: ia zenbat banku bihar diran partaide guztiak lurra ikutu barik egon daitezen 10 segundoz. Jakiña, ikas-mahaixak senduak izan biharko dira.

Benardok diño, hasieran konpetiziñorako aulki musikaltzat hartzen zituela ikasliak, baiña poliki-poliki barneratu egin zebela arrakastia izatekotan talde-lana egin biharra zeguala. Azken emaitza izan zan 30 ikasle sartzia hiru ikas-mahai txikitan 10 segundoz, eta kooperaziñua zer dan hobeto ulertzia. Ikasgeletan konpetitibidadiaren orde kooperaziñua ereiteko modu ezinhobea. Ikasle batek esaten zeban bezala: "lankidetzari esker gauzak azkarrago egiten dira, bestion laguntza daukazulako aurrera egiteko".

-Bale-baleka ibilliko gara ala soka saltuan egingo dogu?



Jolasa: Zubixa

Adina: LH

Materiala: Aulkixak ala kartulinaz egindako laukixak (30 X 30cm-koak): ikasle kopurua baiño bat gutxiago
Helburua: taldiak erreka gurutzatu bihar dau, jokalarixak eruangotuen “harrixak” (aulkixak edo kartulinak) erabilia. Talde txikitan banatuko dira partaidiak, 7-9 jokalariko taldeetan. Erreka bat marraztuko da, jokalaria kopuruaren arabera, danak zabaleran sartzeko moduan. Taldeetako danak ibaiaren alde batetik irtengo dira, bakoitza bere estrategiarekin. Erreka gurutzatu bihar dabe, busti barik, hau da, ezin dabe “harrixetatik” (aulkixetatik) kanpo zapaldu. Animatzaillak azpimarratu bihar dau jokalaria danak iritsi bihar dabela bestaldera eta harri danekin.

Nahi bada, beste erronka bat ere jarri leike: beste aldiaren dagan zeoze hartu (baloia adibidez) eta hasierako tokira bueltau.

Jolasa: Miñik bai?

Edadia: LH

Materiala: (ez dogu ezer bihar)

<p>Lehenengo egoeria Lau neska futbolian dihardue. Batek, nahi barik, baloiari jo biharrian ostiko gogor bat eman jao albokuari orkatillan.</p>	<p>Bigarren egoeria Lau mutil futbolian dabilz. Batek, nahi barik, baloiari jo biharrian ostiko gogor bat eman dotsa albokuari orkatillan.</p>	<p>Hirugarren egoeria Lau neska-mutil futbolian ari dira. Mutilletako batek, nahi barik, baloiari jo biharrian ostiko gogor bat eman jao neska bati orkatillan.</p>
<p>Laugarren egoeria Lau neska-mutilek futbolian dihardue. Nesketako batek, nahi barik, baloiari jo biharrian ostiko gogor bat eman dotsa mutil bati orkatillan.</p>	<p>Bosgarren egoeria. Patxik jai bat antolau du eta gonbitak jarri ditu mahai guztitan, Anderrenian izan ezian.</p>	<p>Seigarren egoeria. Mirenek urtebetetzia ospatzeko jai bat antolau dau eta gonbitak jarri ditu mahai danetan, Ainararenian izan ezian.</p>
<p>Zazpigarren egoeria. Hiru neska iturri onduan dare, edan nahixan. Anek bultza egin jao Martari erditik kentzeko eta aurretik edan ahal izateko. Sorkunde, Martaren laguna be bertan da.</p>	<p>Zortzigarren egoeria. Hiru mutil iturri onduan dare, edan nahixan. Mikelek bultza egin dotsa Pellori erditik kentzeko eta aurretik edan ahal izateko. Iban, Pelloren laguna, be bertan da.</p>	<p>Bederatzigarren egoeria. Maite, Jon eta Koldo iturri onduan dare, edan nahixan. Jonek bultza egin jao Maiteri erditik kentzeko eta aurretik edan ahal izateko. Koldo, Maiteren laguna be, bertan da.</p>

Fitxak moztu eta taldien artian banatu


-Bale-baleka ibilliko gara ala soka saltuan egingo dogu?



Jolasa: Lankidetzarako laukixak

Edadia: DBH

Materiala: Kartuliniarekin gertautako puzliak:



Laukixak eta zatixak moztu ondoren, 5 gutunazal hartu eta A, B, C, D eta E hizkiekin markatu. Ondoren, zatixak gutunazalarekin sartu, horrela: A (a, c, h, i); B (a, a, a, e); C (j); D (d, j); E (b, c, f, g). Ondorengo jolasetan modu desberdiniari banatu leizke.

5 partaideko taldiak egingo ditugu, talde bakoitzari gutunazal bat emango jako eta seiñalia egindakuan zabaldu egingo dabe. Horrela, talde bakoitzian lauki guztiak osatzeko bihar diren 5 gutunazalak egongo dira. Ondoren, animatzaillak jolasaren berri emongo dau puzliarekin konparautu; hau da, denon lankidetzara bihar da aurrera egingo bada.

Aruak honek izango dira:

- Bakoitzak gutunazal bat dauka, eta bertan laukiak osatzeko zati batzuk.
- Jolasaren helburua: danak izatia aurrian lauki bana, eta danon laukixak neurri berekuak izatia.
- Jolasak irauten daben bitartean ezin da berba egin, eta ezin da keiñuen bidez eta bestelako komunikaziñorik izan.
- Ezin dira beste jokalaririk baten zatixak hartu, baiña bai norbere zatixak bestiei laga.
- Talde batzuk baldin badabitz jolasian, jolasa bukatu ahala isilixan egongo dira bestiei begira.

Jolasa: Ehunzangua

Edadia: DBH

Materiala: (ez dogu ezer bihar)

Taldirik egingo ditugu, 6kuak edo lagun gehixagokuk. Bata bestiarekin atzian jarriko dira lurrian, hankak zabalik eta elkarren kontra. Eskuak gorutz jarriko dira eta gorputz osuarekin alde batera eta bestera kulunkan ibilliko dira.



Seiñalia egindakoan, ondo koordinatuta, bueltia emongo dabe, eskuak lurrian dituela, eta azpialdera dagan lagunaren qaiñian hankak trabautu aurrera egiteko moduan qeratu arte. Eta orduan, aurrera egingo dabe.

Jolasa: Luma txinatarrak

Edadia: LH

Materiala: Badminton-ian jolasian egiteko lumak

Txinan, badmingtoneko jokalaririk trebienak daren lekuan, badmingtonian ibiltzeko jolas pilla bat diseiñau ditue. Jolas horretako baten helburua da bi taldekidien artian ahal dan eta lumarik gehixen mantentzia jolasian. Alde bakoitzian lauzpabost jokalaririk baldin badare, jokalaririk bakoitzak bizpahiru luma hartuko ditu eskuan jolasian hasteko orduan. Danak batera botako dabe lehenengo lumia eta gero bestiak, danak aidian mantentzeko ahalegiñak egiñaz. Bat lurrera jausten bada, jaso eta berriz be aidian jartzen da. Txinan 20 luma batera erabiltzia lortu ei dabe.

Beste jolas bat be erabiltzen dabe luma-hegalarixei azkar erantzuten ikasteko. Bi hartzaile sare baten alde batera jarriko dira eta bestaldian lauzpabost jokalaririk, bakoitza luma batzuk eskuan dituala. Honek lumak bialduko jaue hartzailliei eta bixen artian txori gehixenak hegaran edukitzeko ahalegiñak egingo ditue.

-Bale-baleka ibilliko gara ala soka saltuan egingo dogu?




Jolasa: Irla desertua

Adina: DBH

Materiala: Taldeko irlaren mapa bana

Azpitalde bakoitzarendako eszenatokixa hauxe izango da: "Itsasontzia hondoratu egin da eta apur batzuk bizirik irten zarete eta itsasgorak irla batera eruan zaitue (5 minututan aukeratuko dabe noraiño ailegau diren irlan, nahiz eta gero aldatu ahal izango dan). Itsasgoriak hondar batzuk be ekarri ditu irlaraiño: kutxa bat eta egur batzuk".

Irlako mapia emongo jakue, eta bertan dago itsasuak ekarri dituan naufragioaren hondarren zerrenda be.



Itsasontzian topautako kutxia: 2 errifle, muniziño kaxa bat, aizkora 1, poxpolo kaxa 1, soka 1, lona 1, laban 1, lehen laguntzetarako botikin 1, leka lata 1, okela konzentrauko 6 lata eta 6 esne kaxa.

Hurrengo hiru astiak planifikau bihar dituzue: irla arakatu, jatekuak eta ura topau, lana antolatu, bizitzeko tokixa eta modua, bertako tribuaren aurrian izango dan jarrerria, etsai posiblien aurrian izango dan erantzuna, handik ateratzeko aukerak... 30 minutu pasau ondoren, estrategien gaiñian berba egin eta ebaluaziñua egingo da.

Jolasa: Pelota kangurua

Adina: DBH

Materiala: Hiru ikasleko baloi bat

Jokalarixak hiruko taldetan banatu dira. Bi lagun parez pare jarriko dira eta pelotia elkarri pasauko dotse lurretik bueltaka. Hirugarren jokalarixa euren artian jarriko da eta pelotia hurbiltzen jakonian gaiñetik salto egin eta buelta erdi emongo dau, pelotia ikusten jarraitzeko. Hasieran taldekidiak poliki-poliki bultza egingo jaue pelotiar eta apurka-apurka abiadura handituz joango dira, erdikua mugimendu baten egon dedin. Pelotia biraka jartzeko modu asko dare: zutik darella hankarekin bultza eginda edo jarrita darella hankak luzatuta eta batetik bestera bueltaka pasatuta.

Erdikuak esan leike "polikixago", "azkarrago" edo "Horrela, oso ondo", pelotiaren abiadura egokixa dala ziurtatzeko. Zailtasuna aldatzen juateko neurri desberdiñeko pelotak be erabili leizke. Erdikua nekatzen danian, edo salto kopuru jakin bat egindakuan, jokalarixak tokixak aldatu leizkie. Pelota-kanguru hau berotze-ariketa ona izan leike minutu batzuetan mantentzen bada. Nahi bada, hanka baten gaiñian salto egiten be probau leike.

Jolasa: Kooperaziñorako pelota patinetia

Adiña: DBH

Materiala: Pelota txikixa eta biguna (squash edota hondartzan palaz jolastekua, adibidez) eta patinetiak.

Hamar bat laguneko taldiak egingo dira.

Jolas hau patioko saskibaloia edo dribbling-ik gabeko eskubaloia parekua da, baiña honetan talde bakoitzeko jokalar erdixak egurrezko patiñetetan jarriko dira eta beste erdixak gidatu egingo ditue jarritakuak. Jolas hau saskibaloia antzerakua da, baiña kooperaziñorako aldaketa honekin: patiñetetan doiatzen jokalarixak bakarrik hartu leikie pelotia; eta talde bereko jokalar danak ikutu behar dabe pelotia (hau da, pase bat behintzat jaso biharko dabe) taldiak saskiratzeko ahalegiña egin aurretik. Joku-eremuaren albo banatan hiru ate gutxienez egon leizke, tantua egiteko zailtasun desberdiñekuak. Esate baterako, psikomotrizitateko uztai bat jarri leike txintxiliz saskibaloiko uztaitik edo futboleko sare bat zabaldu zelaixaren albo banatan (jokalarixak pelotia bota deixen). Jokalar bakoitzak aukeratuko dau tantuak egiteko modua. Ate edo saski danak puntu kopuru bera emango jaue taldiari. Bikotiak lau bat minutu pasautakoan aldau leikie euren rola, eta nahi dabenian taldien artian be txandakatu. Txandak antolatu ezkerro ziurtatzen da iñor ez dala luzaroegegi egongo bultza egiten edo patinetian jarrita; eta, horrela, taldiaren identidadia itxiogixa izatia galeraetzen da.

-Bale-baleka ibilliko gara ala soka saltuan egingo dogu?



Jolasa: Hiru bandako futbola

Adina: DBH

Materiala: futboleko baloiak

Eskandinaviako jolas tradizionalaren bertsio bat da. Hiru taldek batera jardungo dabe hiru atetan, bat babestu eta beste bixetan tantoa sartzen ahaleginduko dira. Jokalarixak atez aldatu egingo dira txandan-txandan, baiña atezaiñak ez (jolasak irauten daben bitartian ate berian jarraituko dabe).

Pelota batzuk jarriko ditugu jokuan batera, horrela aktibidadia ziurtatuta dago. Ez dago tantuak apuntatzeko sistema ofizialik erabili biharrik. Pelota eta ate bat baiño gehixago jokuan jartzeak eta taldiak atetik atera txandakatzia interesa areagotzen dau eta irabazle izatiari garrantzia kentzen dotsa.

Jolasa: Hockey moldatua

Adina: DBH

Materiala: Hockey-an jokatzeako tresnak eta elastikuak

Jokalarixak bi taldetan (orekatuak, ahal bada) banatuko dira. Talde batek jertse gorrixak jantziko ditu eta bestiak urdiñak. Jokalari batek tantoa egiten dabenian jertseia edo bufandia aldatu bihar dau eta beste taldiarena jarri; hortaz, hortik aurrera beste taldekua izango da.

Ez dira atezaiñak bihar baiña, erabiltzen badira, atiaren neurrixa normalen bikoitza izan beharko da gutxienez.

-Bale-baleka ibilliko gara ala soka saltuan egingo dogu?



Jolasa: Pentsau presa barik, ekin geratu barik

Adina: DBH

Materiala: Ondorengo orrialdiak. (Oharra: jolasaren arauak bertan dare).

Erantzunak:

- 1) Krokodiluak: 9 krokodilo-kume
Azalpena:
Krokodilo-kumien kopurua 3ren multiplua da: 3; 6; 9; 12; ...
krokodilo-kumien kopurua -1 , 4ren multiplua da: 8
Krokodilo-kumien kopurua 3 baiño handixagua eta 13 baiño txixixagua da
- 2) Birigarrua: 6 aste, 11 liburuak irakurtzeko
Azalpena:
Astelehenetik eguakitsera: $\frac{1}{4}$ liburu x 5 egun
Asteburuan $\frac{3}{8}$ liburu x 2 egun
Astian: $(\frac{1}{4} \times 5) + (\frac{3}{8} \times 2) = \frac{16}{8} = 2$ liburu
Gaixorik egon dan astean: liburu 1
Hortaz, bost astetan biña liburu irakurri ditu eta gaixorik egon dan astian liburu bakararra.
- 3) Tximeletia: 7 armiarma eta 5 intsektu
Azalpena:
Armiarma eta intsektuen batuketia 12 da, eta batzuen eta bestien kopuruak bakoitiak dira, beraz: 1 eta 11; 3 eta 9; 5 eta 7
Armiarma gehixago dago, eta armiarmen hanken batuketia $- 26$ intsektuen hanken kopurua izango dogu.
Armiarmak 8 hanka dauzkate, intsektuak, 6:
Beraz, $(7 \text{ arm.} \times 8 \text{ hanka}) - 26 = 30 = (5 \text{ ints.} \times 6 \text{ hanka})$
- 4) Zirauna: Bosta lehenengua izanda, 14 minutu denak zabaldu arte. Eta bixa lehenengua bada, 17 minutu:
Azalpena: Denporia lehenengua zabaltzen danetik kontaktzen da, beraz, bosta bada lehenengua, 5 minutu gutxiago kontau bihar ditugu eta, bixa lehenengua bada, berriz, 2 minutu gutxiago
- 5) Marrazua: Erantzun ezberdiñak lortuko ditugu a) katillua behin bakarrik erabiliz gero edo b) behin baiño gehixagotan.
 - a. Behin bakarrik: ekaitzaren aurretik 4 marrazok, ekaitzaren ondoren 6 marrazok. Batek aurretik eta ondoren hartu zeban, beraz: $10 - 1 = 9$ marrazok
 - b. Behin baiño gehixagotan: ekaitzaren aurretik 13 marrazok, ekaitzaren ondoren 13 marrazok. Batek aurretik eta ondoren hartu zeban, beraz: $26 - 1 = 25$ marrazok hartu zeben teia.

Bakoitzak giltza bat eta bakararra edukiko dau, eta giltza horren JABIA izango da. Horrek esan nahi dau bestiekin irakurri eta komentau leizkiela, baina ezin direla iñundik be emon.

Soluziñuarekin danok ados egon bihar dabe aurkeztu ahal izateko.

**Pentsau astiro
eta ekin**

-Bale-baleka ibilliko gara ala ~ka saltuan egingo dogu?



Tximeleta Txirristan Tximistan

Txingarrezko Txinparta Txikia

- Marrazkixan intsektu baiño armiarma gehixago dago.
- Bai armiarma kopurua, bai intsektu kopurua, bakoitiak dira.
- Armiarma eta intsektu kopuruak batuz gero, guztira 12 ornogabe izango ditugu.
- Armiarmak intsektuak baiño bi hanka gehixago dauzkate.
- Armiarmen hanken batuketari 26 kentzen badotsagu, intsektuen hanken kopurua izango dogu.

Zenbat intsektu dauzkagu?



Krokodiluak

Krokodiloak Kantuan Kontuan

Kumeei Kuluxkan Kulunkan

- Krokodilo-kumien kopurua zenbaki bakoitia da.
- Kantariak bat kulunkatzen dihardu. Beste krokodilo guztien batuketa 4ren multiplua da.
- Krokodilo kumien kopurua 3 baiño handixagua da eta 13 baiño txikixagua.
- Krokodilo-kumien kopuru osua 3ren multiplua da.

Zenbat krokodilo-kume dira?

Birigarrua

Birigarroak Binaka

Bidean Biraka

Biribil Bilduta

- Birigarro batek 11 liburu eruan ditu oporretan irakurtzeko.
- Birigarruak $\frac{1}{4}$ liburu irakurtzen dau gabian, astelehenetik eguakitzera.
- Zapatu eta domeketan, denpora gehixago daukanez, eguneko $\frac{3}{8}$ liburu irakurtzen dau.
- Hirugarren astian gaixotu egin zan (astelehenetik domekara arte) eta irakurri izan dabenaren erdixa besterik ez dau irakurri.
- **Zenbat egun biharko ditu liburu guztiak irakurtzeko?**



-Bale-baleka ibilliko gara ala soka saltuan egingo dogu?




Zirauna

- Zilarrezko Zinta*
- Ziraun Zirikatzailea*
- Zirrara Zintzilika*
- Ziztuan Zirkuluan*

- Gazte batzuk ziraunen hapixia topau dabe eta bertan 5 arrautza, 1etik 5era zenbakituta.
- Arrautzak bata bestiaren atzetik zabaltzen hasi dira.
- Zenbaki bikoitia daukaten arrautzak aurrekua baiño 2 minutu geruago zabaldu dira.
- Zenbaki bakoitia daukaten arrautzak aurrekua baiño 5 minutu geruago zabaldu dira.
- 5 zenbakixa daukan arrautzia izan da zabaldu dan lehenengua.



**Zenbat denbora pasau da danak zabaldu arte?
Eta zabaltzen lehenengua 2 zenbakiduna izanez gero?**



Marrazua

- Marrazo Makurra*
- Mardul Mastekatuz*
- Makailo Makal Marmartia*

- Marrazuak elkartu zirenian 13 katillu besterik ez zeren.
- Ekaitzaren aurretik teia hartu zeben marrazo guztiak hiruna katillu hartu zeben.
- Ekaitzaren ostian teia hartu zeben marrazo guztiak biña katillu hartu zeben.
- Marrazo bakar batek hartu zeban teia ekaitzaren aurretik eta ostian.

Zenbat marrazok hartu zeben teia?

(Galdera honek gutxienez bi erantzun zuzen dauzka.)

GATAZKEN BEHAKETA-ORRIXA:

Arazuak modu desberdiñian ikusten ditugunian ez gara ados jartzen eta, askotan, eztabaida eta liskarretan sartzen gara. Ondorengo taulak parte-hartzaille bakoitzaren jarrerak jasotzeko eta aztertzeko aukeria emoten dosku.

		PARTE HARTZAILLIAK					
GATAZKAREN AZTERKETIA	Hausnarketia egiten dau						
	Gatazka sortu dala konturatzen da						
ELKARRIZKETARAKO ESTRATEGIXAK	Bestiari entzuten jao						
	Bestiaren iritzixa edo jokaeria errespetatzen ditu						

-Bale-baleka ibilliko gara ala soka saltuan egingo dogu?



GATAZKAK BIDERATZEKO ESTRATEGIXAK	Indiferentzia (berdin jao)						
	Hitzez erasotzen dau						
	Fisikoki erasotzeko jokaeria						
	Ulerkorra da						
	Besteon menpe egoten da						
	Elkarrizketetarako gertu						
TALDE-LANERAKO ESTRATEGIXAK	Ardurak hartzeko gertu						
	Ardurak hartzeko iñork agintziaren zain						
	Arauak errespetatzen ditu						
	Bestiei laguntzeko eskaintzen dau bere burua						
	Onartzen ditu bestien iradokizunak						
	Laguntzeko eskatu bihar jako						
	Amore emoten dau arrazoirik ez badauka						

(Arian-arian. *Bakegintzarako hezkuntza 4*. Ikastolen Elkartea / Elkarri. 1996. Moldaturik

-Bale-baleka ibilliko gara ala
soka saltuan egingo dogu?

